# XIV
# Musikagileak

Musika Garaikidearen Zirkuitua

*Circuito de Música Contemporánea*

2023ko Iraila - 2024ko Apirila

Septiembre 2023 - Abril 2024

# Bilbao Orkestra Sinfonikoa (BOS)

21
2023ko iraila
Septiembre 2023
20:00

Teatro Campos Elíseos Antzokia (Bilbo).

Sarrera / Entrada: 3€.





Zuzendaria / Directora: Yalda Zamani

Hilario Extremiana
INTRODUCCIÓN Y DANZA "HONAI" (2017)

Helga Arias
NOISE-INDUCED HEARING LOSS (2021-2022) *

Mikel Iturregi
IHES EGINEZ (2019)

Xabier Mariño
SÁLVORA (2019)

Félix Ibarrondo
EXCELSIOR (2019-20)

*Erabateko estreinaldiak

Musikagileak

El Concierto Inaugural de la decimocuarta edición del Circuito Musikagileak comienza con una nueva versión de **Honai**, una brillante marcha para txistu y acordeón que **Hilario Extremiana** escribió en el año 2000 y que se ha convertido en un clásico del repertorio de los txistularis. Hoy la escucharemos en una reelaboración de 2018 que va más allá de la simple orquestación, y que además ha sido revisada para esta noche. La nueva Honai «comienza con una sutil nueva introducción que quiere ser contraste de la enérgica danza de la segunda parte de la obra», explica el autor mirandés. Esa segunda parte tiene forma tripartita: la primera sección plantea un motivo temático muy definido que se desarrolla en el tutti orquestal; la segunda, más pausada, «toma un respiro en lo que a fuerza y desplazamientos rítmicos se refiere»; por último, «la tercera sección repite parte de la primera, finalizando la obra con una veloz y enérgica coda».

La siguiente obra del programa es también la reimaginación de una creación anterior. **Noise-induced hearing loss**, de **Helga Arias**, vio la luz en 2016 como trío de acordeón, saxofón barítono y contrabajo, pero la que escucharemos hoy es con propiedad una partitura nueva aunque parta del mismo concepto: la exploración de los efectos psicoacústicos ocasionados por la dolencia conocida como «pérdida de audición inducida por el ruido». La compositora bilbaína explica que, «en algunos casos, la NIHL provoca la pérdida de una gama muy estrecha de frecuencias, mientras que en otros las personas afectadas son incapaces de percibir un sonido y reconocerlo como tal. Otros efectos secundarios son la alta sensibilidad al ruido o los zumbidos o pitidos constantes (acúfenos)». De esta forma, la obra «sitúa al oyente en una gran variedad de situaciones auditivas: desde explosiones de ruido hasta pasajes en los que el nivel sonoro es casi imperceptible o en los que el espectro se reduce a una banda mínima de frecuencias».

**Ihes eginez** (huyendo) es la primera obra orquestal que compuso **Mikel Iturregi** en 2019. La partitura presenta un subtítulo: vers le frais oubli de ce qui nous exilé (hacia el fresco olvido de lo que nos ha exiliado), una variación de un poema de Verlaine que ha inspirado a Iturregi otras dos obras además de esta. Según explica el joven compositor de Sopela, «me interesaba mucho pensar en la forma como un recorrido de un punto de partida hasta un lugar inesperado, como la "huida" a la que hace referencia el título. En ese camino hay una sección central que es una especie de ritual, con un aspecto rítmico repetitivo bastante marcado.También la sección final retoma esta idea, con los acordes repetidos que van ralentizándose hasta el final».

El compositor gallego **Xabier Mariño** fue uno de los primeros estudiantes de Composición que salió de las aulas de Musikene, he ahí su conexión con Musikagileak y la vida musical vasca. **Sálvora**, estrenada en 2019 por la Real Filharmonía de Galicia, toma su inspiración de una leyenda según la cual los vikingos, cuando exploraban las costas gallegas, se vieron sorprendidos por el canto de las sirenas al navegar frente a la isla de Sálvora. Una de las sirenas acabó conquistando al líder de la expedición vikinga y fruto de esa relación nació el primer "Mariño". Esta curiosa historia constituye uno de los hilos argumentales de la obra.

La velada finaliza con el estreno absoluto de la última creación orquestal de **Félix Ibarrondo**, titulada **Excelsior**. Musikagileak quiere rendir así homenaje al compositor de Oñate y socio honorífico de Musikagileak en su octogésimo aniversario.

**Mikel Chamizo**

Musikagileak

Musikagileak Zirkuituaren hamalaugarren edizioaren inaugurazio kontzertua **Hilario Extremiana**ren **Honai** lanarekin hasiko da, 2000 urtean txistu eta akordeoirako idatzitako martxa bikaina, txistularien errepertorioan klasiko bihurtu dena. 2018an burutu zuen orkestrarako moldaketaz baina haratago doan birlanketa hau, eta, gainera, gaurko kontzerturako berrikusi duena. Honai berri hau «obraren bigarren zatiko dantza kementsuaren kontraste izan nahi duen sarrera sotil batekin hasten da», azaldu du Mirandako egileak. Bigarren atal horrek hiru sekzio ditu: lehenengoak tutti orkestralean garatzen den motibo tematiko oso zehatz bat planteatzen du; bigarrenak, pausatuagoa, «arnasa hartzen du indarrari eta joan-etorri erritmikoei dagokienez»; azkenik, «hirugarren sekzioak lehenengoaren zati bat errepikatzen du, obra koda azkar eta kementsu batekin amaituz».

Egitarauko hurrengo lana aurreko sorkuntza baten birirudikapena ere bada: **Helga Arias**en **Noise-induced hearing** loss lanaren bertsio berri bat. 2016ko jatorrizko pieza akordeoi, saxofoi baritono eta kontrabaxu hirukote bat da, eta gaur entzungo duguna kontzeptu beretik abiatzen den partitura ezberdin bat da, «zaratak eragindako entzumen-galera» izeneko gaitzak eragindako efektu psikoakustikoen esplorazio bat, hain zuzen ere. Bilboko musikagileak azaldu duenez, «kasu batzuetan, NIHLak frekuentzia-gama oso estu bat galtzea eragiten du, eta beste batzuetan, berriz, kaltetutako pertsonak ez dira soinu bat hautemateko eta halakotzat ezagutzeko gai. Beste albo-ondorio batzuk zaratarekiko sentikortasun handia edo etengabeko burrunba edo txistuak (akufenoak) dira». Horrela, lanak «entzumen-egoera ugaritan kokatzen du entzulea: zarata-leherketetatik hasi eta soinu-maila ia hautemanezina den pasarteetara, edo espektroa frekuentzia-banda minimo batera murrizten den pasarteetara».

**Ihes eginez Mikel Iturregi**k 2019an konposatu zuen lehen orkestra-lana da. Partiturak azpititulu bat darama: vers le frais oubli de ce qui nous exilé (erbesteratu gaituenaren ahanztura freskorantz), Verlaine-n poema baten aldaera bat, Iturregiri honetaz gain beste bi lan inspiratu dizkiona. Sopelako konpositore gazteak azaldu duenez, «asko interesatzen zitzaidan forma musikala ibilbide bat bezala pentsatzea, izenburuak aipatzen duen "ihesa", abiapuntu batetik ustekabeko leku bateraino. Bide horretan, erdiko sekzio bat dago, erritual moduko bat, itxura erritmiko errepikakor samarra duena. Azken sekzioak ere ideia horri heltzen dio, behin eta berriz errepikatzen diren akordeekin, eta horiek motelduz doaz amaieraraino».

**Xabier Mariño** galiziar musikagilea Musikenetik atera zen Konposizioko lehen ikasleetako bat izan zen, horra hor Musikagileak-ekin eta euskal musikarekin duen lotura. **Sálvora** 2019an estreinatu zuen Galiziako Errege Filharmoniak, eta kondaira batetik hartzen du inspirazioa. Kondaira horren arabera, bikingoek, Galiziako kostaldeak arakatzen ari zirenean, sirenen kantuak entzun zituzten Sálvora uhartearen parean nabigatzean. Sirenetako batek bikingoen espedizioko liderra konkistatu zuen, eta harreman horren ondorioz jaio zen lehen "Mariño" abizenduna. Istorio bitxi hau obraren argumentu-harietako bat da.

Gauari amaiera emateko, **Félix Ibarrondo**ren azken orkestra-sorkuntzaren erabateko estreinaldia entzuteko aukera izango dugu, **Excelsior** izenekoa. Estreinu honen bidez, Musikagileak-ek omenaldia egin nahi dio Oñatiko konpositore eta elkartearen ohorezko bazkideari bere laurogeigarren urteurrenean.

**Mikel Chamizo**

Musikagileak

# Babesleak / Patrocinadores

# Laguntzaileak / Colaboradores

# Antolatzailea / Organizador

HARREMANETARAKO / CONTACTO
**MUSIKAGILEAK** *Alfonso XI 2, 20100 - Errenteria (Gipuzkoa)* _ *616 843 350* _ **www.musikagileak.com** _ *info@musikagileak.com*